

GRADUKO IKASLEEK EBALUAZIO PROBEN KOPIA ESKATU ETA ESKURATZEKO JARRAIBIDEAK

ARAU ESPARRUA

UPV/EHUko Ikasleen Arautegiak, Gobernu Kontseiluaren 2023ko urriaren 19ko Erabakiaren bidez aldatuak (EHAA, 2023.11.13), besteak beste, honako eskubide hau aitortzen die unibertsitateko ikasle guztiei:

"2. artikulua. -UPV/EHUko ikasleen eskubideak.

UPV/EHUko ikasleek, gainerako ordenamenduak aitortutako eskubideez gainera, honako hauek izango dituzte:

(...) 34.-A Bere azterketaren kopia zuzendu bat eskuratzea, ebaluazio arautegian kalifikazioak berrikusi eta erreklamatzeko zehaztutako prozeduren arabera."

Bestalde, Ikasleen Ebaluazioa arautzen duen Arautegiak, 17. artikuluan, behin-behineko kalifikazioak argitaratzeari buruzkoa ezartzen du; 18. artikuluan, kalifikazioak berrikusteari buruzkoa, eta 22. artikuluan, kalifikazioak erreklamatzeko prozedurari buruzkoa.

"17. artikulua. - Behin-behineko kalifikazioak argitaratzea.

Deialdi ofizialeko ebaluazioaren behin-behineko kalifikazioak 12 egun naturaleko epean argitaratuko dituzte irakasleek, ebaluazio proba egiteko data ofizialetik kontatzen hasita eta unibertsitateak horretarako prestatuta dituen baliabide informatikoak erabilita. Behin-behineko kalifikazioarekin batera argi agertu beharko da argitaratze data, kalifikazioak berrikusteko eskarietarako epea ezartzeari begira. (...)

18. artikulua.- - Kalifikazioak berrikustea.

1.- Behin-behineko kalifikazioa argitaratzean, kalifikazioa irakasgaiaren ardura duen irakasle edo koordinatzailearekin berrikusteko eguna, tokia eta ordua zehaztu beharko da; berrikuspenerako epea, bestalde, gutxienez hiru egun naturalekoa eta gehienez seikoa izango da, kalifikazioa argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

2.- Berrikuspena pertsonala eta banakakoa izango da eta bertan, ikasle bakoitzak eskura izango du dagokion ebaluazio proba; horrez gain, lortutako kalifikazioari buruz eman beharreko azalpen guztiak emango zaizkio ikasleari ahoz eta, behar izanez gero, dibertsitate funtzionala duten pertsonen premia espezifikotara moldatuta. (...)

19. artikulua.- Irakasgaiaren akta ofiziala.

1.- Berrikuspenerako epea amaitu eta, gehienez ere, hiru egun naturaleko epearen barruan irakasgaiaren ardura duen irakasleak irakasgaiaren matrikulatutako ikasleek lortutako behin betiko kalifikazioak jasotzen dituen akta ofiziala bete eta sinatuko du. (...)"

Esparru normatibo horren barruan, egindako ebaluazio probaren kopia bat izateko eskubidea oinarritzkoa da, ikasleak ebaluazioari buruzko erreklamazioak egin ahal izan ditzan, alderdi guztiak ezagututa egin eta funtsatu ahal izan ditzan.

Hori guztia abiapuntutzat hartuta, jarraibide hau ematen da irakasleek, sailek eta, hala balegokio, ikastegiak beren ebaluazio proben kopia bat lortu nahi duten ikasleen eskaerei erantzuteko nola jardun behar duten ezartzeko, kalifikazioak berrikusteko eta erreklamatzeko prozeduren esparruan. Hala ere, ebaluazio jarraituko sisteman, irakasleek ebaluazio proben kopiak eman diezazkiokete ikasleari, ikasturtean zehar garatutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetako atzeraelikaduraren zati gisa.

JARRAIBIDEA

Hona hemen jarraibide honen laburpena:

1. Ebaluazio proba baten kopia eskatzeko baliatu beharreko modua.

Ikasleak Egoitza Elektronikoaren (Egoitza) bidez egin behar du eskaera, erregistro elektronikoro korrean sartuz. Eskaera irakasgaiaren kasuan kasuko ikastaldeari irakatsi dion irakasleari zuzendu beharko zaio, aztertu beharreko ebaluazio proba edo, hala badagokio, probak identifikatuz.

Prozesuan zuzendutako edozein ebaluazio proba izan daiteke, irakasgaiaren kalifikazioaren gainean eragin eta haztaperik badu (hala nola ikasturtean zehar egindako probak, irakasgaiaren kalifikazioaren % bat baitute).

2. Kopia eskatzeko epeak.

Ebaluazio proba baten kopiaren eskaera irakasgaiaren behin-behineko kalifikazioa jakinarazi ondoren egin ahal izango da, hura berrikustean, edo, bestela, behin betiko kalifikazioak dituzten aktak argitaratu eta hurrengo 3 egun naturalen barruan.

Lauhilekoan zehar aurkeztutako ebaluazio jarraituko probak direnean eta irakasgaiaren kalifikazioan pisuren bat dutenean, horien kopia lehengo epeetan ere eskatu beharko da.

3. Kopia kasuan kasuko ikasleari emateko epeak.

Eskabidea egoitza elektronikoan (Egoitza) formalki aurkeztu ondoren, irakasleak probaren edo proben kopia eman beharko dio ikasle eskatzaileari egoitza elektronikoaren bidez, 3 egun

naturaleko epean, eskaeraren jakinarazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Epe horretan erantzunik emango ez balitzaio, ikasleak irakasgaiaren ardura duen saileko zuzendariarengana jo lezake Egoitza Elektronikoen bidez. Zuzendariak ahalik eta lasterren erantzun beharko dio eskaerari.

Kontutan hartuta zuzendutako ebaluazio probaren kopia bat edukitzeko eskubidea oinarrizko balorazio elementu bat dela ikasleak bere kalifikazioak berrikusteko eta erreklamatzeko prozeduran parte hartu ahal izan dezan, irakasle arduradunek ikasle eskatzaileari kopia berandu emateak ezin lekarkioke kalterik prozedura honi dagokionean.

Horregatik, etsaminaren kopia behin eskatu delarik, ez da zenbatzen hasiko sailaren aurrean erreklamazioa egiteko arauzko sei egun naturaleko epea, kopia ikasleari benetan helarazi arte.

4. Ikasle bakoitzari entregatzeko dokumentua

Galdegindako irakasleak, ikasleak berrikuspenera eskatu ondoren, egoitza elektronikora igoko du unean une baliatutako galderen eta ikasleak emandako erantzunen kopia.

Ebaluazio probak izan ditzake irakasleak egindako oharrak, baldin eta, proba zuzentzerakoan, bertan jaso baditu. Ikasle bakoitzari emandako dokumentuan egindako idatzohar horiek ez dira izango eman beharreko dokumentazioaren kopia bat emateko eragozpen; hala ere, irakasleak ohar horiek estali edo ezabatu ahal izango ditu entregatu beharreko kopia egin aurretik, betiere entregatu beharreko edukiari eragiten ez badiu. Hori dela eta, gomendatzen da irakasleak, proba zein etsaminak zuzentzeko hartu beharreko oharrek dokumentu osagarri batean gitea.

5. Entregatzeko modua

Frogaren kopia egoitza elektronikoen bidez emango da, eskaneatuta.

Ikasle bakoitzari ematen zaion informazio horrek hirugarrenei eragiten dieten datuak izan ditzakeenez, ikasle eskatzaileari jakinarazi behar zaio kalifikazioak berrikusteko eta erreklamatzeko prozedurara mugatu behar dela informazio horren erabiltzea, eta ukitutako pertsonen baimenik gabe datu horiek hirugarrenei zabaltzeak edo lagatzeak erantzukizunak eskatzea ekar dezakeela, datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki. Horregatik, gomendatzen da ohartarazpen hori sartzea, eskatutako kopia bidaltzerakoan atxikitako mezuan.

Akademia Antolakuntza eta Ikasleen Zuzendariordea

Dolores Encinas Malagón